

PERLAS / BITXIAK



THE SHOW MUST GO ON

Gaizkile hauskorra

Batzuetan pentsatzen dugu Estatu Batuetatik kanpo ez dagoela kasik gangsterrik, eta oso oker gaude, munduko edozein tokitan aurkitzen baitira dirua eta boterea lortzearren hiltzeko edo lapurtzeko prest dauden gaizkileak. Zineak eta literaturak beti sentitu dute gaizkileenganako nolabaiteko erakarpena eta maisulan ugari egin dira banden inguruan, baina, hemen bai, gehienetan gaizkile estatubatuarra izan dira pantailatan agertu direnak. Gauzak aldatzen hasi dira eta ia munduko filmografia guztietan islatu dute hanparen mundua; hor daude, esate baterako, *polar* eta *neopolar* frantsesak eta beste hainbat herrialde europarretan egin diren pelikula beltzak. Asiak ere nolabaiteko tradizioa izan du betidanik gai honi dagokionez, eta aspaldian ikasi genuen zer ziren Txinako *triadak*.

Edozein modutan, inoiz ez da erraza izan gaizkileen erretratu zehatzak osatzea. Kasu askotan manikeismoan erori dira gidoigileak eta zuzendariak, poliziak eta gaizkileak oso gaiztoak edo oso onak aurkez-



tuz, baina *The Show Must Go On* honek askoz ere pertsonaia konplexuagoak aurkeztu daitzkeela erakusten du, hau da, aldi berean oso krudelak izan daitzkeenak eta alabaren mespretxua sentitzean hondora daitzkeenak.

Izan ere, horixe da Han Jae-rim zinegileak zuzendutako filmaren meriturik handienetakoa, pertsonaia guztiz sinesgarria aurkeztea, honekin batera egoera sinesgarriak ere ikus ditzakegularik. *The Show Must Go On* ez da bakarrik biolentziaz beteriko pelikula bat; ha-

ratago doa eta pertsona baten zalantzak, nahiak eta desioak erakusten ditu. Mafiaren barnean dituen zereginez gain, familiarrentzako etxe berria lortu nahi du, baina alaba ez dago konforme aitaren lanbidearekin eta horrek sumindu egiten du Ingu gaizkilea. Eta jakina, taldeen arteko borroken ondorioz hainbat arazo izanen ditu protagonistak.

Istoriaren sinesgarritasunaz hitz egin dugu, eta sinesgarritasun hori Song Kang-ho aktorearen lan bikainari zor zaio neurri handi batean. Hainbat pelikulatan ikusia genuen aktorea, esate baterako *Memories of Murder* sarituan, baina beharbada iraganetik alde egin eta pertsona arrunt bat bezala bizi nahi duen mafioso nekatuarena da onenetakoa.

Hego Korearen zinematografia gero eta garrantzi handiagoa lortzen ari da, neurri handi batean zinemaldietan, eta, batzuetan kontrakoak badirudi ere, Kim ki Duk ez da herrialde horretan dagoen zuzendari bakarra. Bertako pelikulek zailtasun handiak izaten dituzte Europako pantailetara iristeko, baina behin ailegatuz gero argi geratzen da izan ohi duten kalitatea. **M.B.**

CAMEL

El Beirut cotidiano

Al escuchar los nombres de Líbano o Beirut, pensamos automáticamente en escaramuzas entre edificios derruidos, en bombardeos, en atentados contra los líderes de una u otra facción musulmana o cristiana, pero en los periodos en que callan las armas emerge otro Beirut, el de la cotidianeidad, el de las relaciones entre personas con las mismas preocupaciones que todo el mundo, cuestiones tan prosaicas y tan poco heroicas como el amor, la nostalgia, los colores del pelo, la obsesión por estar guapos, la duda de si nos llamará o la elaboración de una tarta. De todo esto es de lo que habla *Caramel*, una película sobre Beirut sin soldados, sin explosiones, sin líneas verdes, protagonizada por tres peluqueros que intentan salir adelante en el día a día, sobre un curioso microcosmos, el de la peluquería, en el que se podría elaborar perfectamente un estudio de sociología.

La naturalidad y la simplicidad son virtudes opuestas a lo artificioso, a lo ampuloso, a lo falso, y, en este sentido, *Cara-*

mel es una película llena de autenticidad, de verdad, sobre las personas y sus sentimientos, sobre lo feliz o lo infeliz que se puede ser en tiempos de paz. Habla de una ciudad y de sus gentes, y no puede esconder el cariño que siente por ellas, el amor con que contempla sus penas de amor o sus dificultades. Es una historia que se ve con una sonrisa permanente, y es que la relación entre todos los personajes es de una complicidad que envuelve también al espectador, y todo ello sin llegar a caer en ningún momento en el almíbar, en el sentimentalismo falso, en la tontería.

Es verdad que *Caramel* refleja un Beirut concreto, el Beirut cristiano y más o menos acomodado, sin acercarse a los campos de refugiados o a los colectivos más desfavorecidos, pero eso no le resta un ápice de autenticidad ni de encanto. Y es un motivo de verdadera satisfacción comprobar que en países de Oriente Medio, aunque sea con la colaboración europea, se hacen películas de la calidad de este *Caramel*. **M.B.**

ESPECIALES

EL AÑO DE TODOS LOS DEMONIOS



1975, el año de todos los demonios

Justamente ocho meses después del fallecimiento del general Franco (20-11-1975), desapareció misteriosamente uno de los dirigentes de ETA político militar, Eduardo Moreno Bergaretxe, conocido como "Pertur".

Comenzaba la denominada "transición" y en el seno de la organización armada daba comienzo el debate sobre el camino a seguir: ¿La muerte del dictador garantizaba una democracia plena para Euskadi o era preciso seguir forzando la situación a través de la lucha armada?

La postura crítica de "Pertur" hacia la continuación de la actividad armada motivó que su desaparición, aún sin esclarecer, se relacionara con las discrepancias internas de la organización.

Ahora, treinta años después, el documental del realizador vasco Ángel Amigo, quien en su día ya había escrito un libro sobre este caso, pone en cuestión las teorías que han venido circulando entre nosotros a este respecto, aportando nuevos datos sobre lo sucedido y enclavándolo en un contexto más general (los inci-

pientes pasos de la transición española, la postura de Argelia con respecto a la crisis del Sahara, las obsesiones del general Pinochet en relación con lo que él denominaba la subversión mundial, etcétera).

En este sentido Ángel Amigo, basándose en numerosos informes de la Justicia italiana, arroja sobre el caso de "Pertur" una nueva hipótesis que vincula su desaparición con la guerra sucia contra ETA, llevada a cabo en esta ocasión por un grupo de neofascistas italianos, en connivencia con los servicios secretos españoles.

No obstante, el director no se centra únicamente en el debate interno de la organización ni en la detención, interrogatorio y posterior desaparición de Moreno Bergaretxe, sino que intenta situar estos hechos en las coordenadas de aquella convulsa época, a través de la presentación de una serie de trágicos sucesos (guerra sucia contra ETA, la matanza de Vitoria-Gasteiz, el muerte de los sucesos de Montejurra, manifestaciones a favor de la amnistía...) que jalaron el que para Ángel Amigo (y para muchos hombres y mujeres de Euskal Herria) fue el año de todos los demonios.

.....
Xabier PORTUGAL

NUEVOS DIRECTORES



THE BIRD CAN'T FLY

Hondarraz eraikitako istorio poetikoa

Mundu bitxia osatu du Threes Anna zuzendariak *The Bird Can't Fly* izeneko pelikula honetan, nolabaiteko edertasuna duen unibertso poetiko harrigarria eraikiz. Ez dirudi herrialde konkretu batean kokatuta dagoenik, eta pertsonaiek ere amets batetik ateratakoak dirudite. Beharbada kontatzen duen istorioa arrunta da, baina eszenatokia eta film osoa inguratzen duen atmosfera guztiz orijinalak dira. Orijinaltasun hori da hain zuzen ere filmaren ezaugarri interesgarrienetako bat, basamortu ikaragarri baten itxura hartzen duen inguruarekin batera.

Emakume bati alabaren heriotzaren berri eman diote eta hildakoa bizi zen tokirantz abiatu da, aldi berean bere iraganerako bidaia ere badela susmatu gabe. Inoiz ez da oso ongi moldatu alabarekin, badirudi urteak daramatzatela elkarren berririk izan gabe. Berak aspaldian alde egin zuen toki estraino hartatik, baina alabak ez zuen lagundu nahi izan, esan ez bazion ere haurdun zegoelako. Lurperatzen ari diren momentuan iritsi da Fairlands izeneko herrira eta orduantxe jakin du alabak seme



bat izan zuela, hondarrezko mundu hartan libre eta basati bizi dena. Harremanak mutikorekin nahiz honen aitarekin ez dira batere errazak izanen. Bizimodua ere korapilatsu samarra da, hondarraz eta eroritako etxeen arrastoez gain ez baitago apenas ezer, eta, zahar eta emakume batzuez gain, ostruka batzuk dira han barrena ibiltzen diren bakarrak. Ostrukekin, bestalde, harreman berezi samarra du mutikoak.

Amona eta bilobaren arteko berradiskiditza kontatzen du filmak, eta azpimarratzekoa da Barbara Hershey aktoreak egindako lana, duen eskarmentua agerian geratzen baita. Baldintza larrietan ere gizakiak aurrera segitzeko duen indarra ere azpimarratzen da momentu batzuetan, baina gauza guztien gainetik amets batean gaudela ematen du ia denbora guztian. Hondarrezko amets honetatik sentsazio bitxi batekin aterako da ikuslea, ia-ia ustez gainean daraman harea astinduz. **M.B.**